120 ordutik gorakoa: 0,75 puntu.

– Osasun-arloko lanbideetako langileak etengabe prestatzeko Euskal Kontseiluak egiaztatutako ikastaroak, edo osasun-sistema nazionaleko etengabeko prestakuntzako batzordeak, edo autonomia-erkidegoetako etengabeko prestakuntzako kontseiluek egiaztatutakoak.

Kreditu-kopurua, kurtso bakoitzeko:

kreditu 1era arte, 0,05 puntu.

– 1,1 eta 3 kreditu bitartean: 0,1 puntu.
– 3,1 eta 5 kreditu bitartean: 0,2 puntu.
– 5,1 eta 8 kreditu bitartean: 0,4 puntu.
– 8,1 eta 12 kreditu bitartean: 0,6 puntu.

12 kreditutik gora: 0,75 puntu.

Kontzeptu horretan, gehienez ere, 5 puntu lor daitezke.

Kurtsoa bai ikastorduka bai kredituka egiaztatzen denean, orduan, lortutako kreditu-kopuruaren arabera baloratuko da puntuazioa.

5.– Euskara.

a) EGA agiria edo baliokideren bat egiaztatuz gero: 5 puntu.

b) Hizkuntza Eskola Ofizialeko oinarrizko zikloa egiaztatuz gero, 2,5 puntu.

Kontzeptu horretan, gehienez ere, 5 puntu lor daitezke.

6.– Europar Batasuneko hizkuntzak.

a) Hizkuntza Eskola Ofizialeko ingeles-, frantses- edo aleman-titulua edo baliokideren bat egiaztatuz gero, 1 puntu, titulu bakoitzeko.

b) Ingeleseko, frantseseko edo alemaneko oinarrizko zikloan, Hizkuntza Eskola Ofizialeko titulua edo baliokideren bat egiaztatuz gero, 0,5 puntu.

Kontzeptu horretan, gehienez ere, 2 puntu lor daitezke.

más de 120 horas: 0,75 puntos

– Cursos acreditados por el Consejo Vasco de Formación Continuada de las Profesiones Sanitarias, por la Comisión de Formación Continuada del Sistema Nacional de Salud o por los Consejos de Formación Continuada de las Comunidades Autónomas:

Número de créditos por curso:

hasta 1 crédito 0,05 puntos

– entre 1,1 y 3 créditos: 0,1 puntos
– entre 3,1 y 5 créditos: 0,2 puntos
– entre 5,1 y 8 créditos: 0,4 puntos
– entre 8,1 y 12 créditos: 0,6 puntos

más de 12 créditos: 0,75 puntos

La puntuación máxima por este concepto no podrá superar 5 puntos.

Cuando un curso haya sido certificado tanto en horas lectivas como en créditos, se puntuará atendiendo al número de créditos otorgados.

5.– Euskera.

a) Por acreditación del certificado EGA o equivalente: 5 puntos.

b) Por acreditación del ciclo elemental de la Escuela Oficial de Idiomas o equivalente, 2,5 puntos.

La puntuación por este concepto no podrá superar 5 puntos.

6.– Idiomas Unión Europea.

a) Por acreditación del título de inglés, francés o alemán, de la Escuela Oficial de Idiomas o equivalente: 1 punto por título.

b) Por acreditación del ciclo elemental de inglés, francés o alemán, de la Escuela Oficial de Idiomas o equivalente, 0,5 puntos.

La puntuación por este concepto no podrá superar 2 puntos.

## Zk-944

**24/2004 DEKRETUA, otsailaren 3koa, farmazia-bulegoak sortzeko, lekuz aldatzeko, ixteko eta jardunean aritzeko prozedurak arautzen dituen Dekretua aldatzeko dena.**

Ekainaren 27ko 338/1995 Dekretuaren bitartez, farmazia-bulegoak sortzeko, lekuz aldatzeko, ixteko eta jardunean aritzeko prozedurak arautu ziren.

## N°-944

**DECRETO 24/2004, de 3 de febrero, de modificación del Decreto por el que se regulan los procedimientos de creación, traslado, cierre y funcionamiento de las oficinas de farmacia.**

Mediante Decreto 338/1995, de 27 de junio, se regularon los procedimientos de creación, traslado, cierre y funcionamiento de las oficinas de farmacia.

Dekretu horren I. tituluan, farmazia-bulego berriak sortzeko prozedura ezarri zen, Euskal Autonomia Erkidegoko Farmaziak Antolatzeko ekainaren 17ko 11/1994 Legearen 34. artikuluan xedatutakoa garatzearren. Artikulu hori, indarrean sartu aurretik erabilgarri zegoen legeriaren aldean, erabat berria eta berriztatzailea zen; besteak beste, hortxe ezarri zen farmazia-bulego baten titularitatea eskuratzeko prozedura lehiakideek erakutsitako merezimenduetan oinarritu behar zela; horretarako, ondo arautako baremo bat ezarri behar zen, lehiakide horien merezimendu profesional zein akademikoak aintzakotzat hartuta.

Horri lotuta, beraz, legez agindutako hori betetzearren, 338/1995 Dekretua eman zen; horren bidez arautu zen farmazia-bulego berriak sortzeko prozedura, eta dekretuaren eranskinean finkatu zen titularitatea eskuratzeko merezimenduen baremoa.

Horrez gainera, martxoaren 16ko 166/1999 Dekretuaren bidez ezarri zen farmazia-bulegoak eskuz aldatzeko prozedura, eta horren eranskinean finkatu ziren farmazia-bulegoak eskuz aldatzeko balorazio-irizpideak eta merezimenduen baremoak; era horretara, prezioa ordaintzeko gaitasun ekonomikoa edo transmisio-egileak ezarritako gainerako baldintzak ez ziren izango aurrerantzean farmazia-bulego baten jabetza eta titularitatea hartzeko betekizun bakarra. Azken batean, farmazietan bezeroei ematen zaien zerbitzua hobetzea eta kalitatea handitzea, horixe da hemen funtsean lortu nahi dugun filosofia, eta, hain zuzen ere, farmazia berriak sortzerakoan, helburu horixe bera da lortu nahi da, lehiakideek erakutsi beharreko merezimenduetan oinarritutako prozedura erabilita.

Beraz, alde batetik, egia da, 166/1999 Dekretuan ezarritako balorazio-irizpideak eta merezimenduen baremoa (338/1995 Dekretuko merezimendu-baremoaren aldean) oso lagungarri izan zirela zerbitzua hobetzeko eta aurrera egiteko orduan; baina, aldi berean, agerian geratu ziren 338/1995 Dekretuko beste hutsune batzuk, besteak beste, balorazio-irizpiderik ez egotea bertan. Gainera, bi era horietako prozedurak tramitatu behar zituztenen eguneroko lana zaildu eta korapilatu egin da asko azken aldi honetan; neurri handi batean, horrexegatik, prozedura era batekoa edo bestekoa izan, baremoetan bata edo bestea erabili behar zutelako, eta ez dago, inola ere, horrelako alderik zertan egon.

Egoera hori konpontzeko, beharrezkoa da farmazia-bulego berriak sortzerakoan erabili beharreko baremoa egokitzea, eta, horretarako, transmisioetan erabilitako balorazio-irizpide eta merezimenduen baremo berak hartzea; dena dela, kontuan hartu behar da baremo eta irizpide horiek orain ez direla 166/1999 Dekretuaren eranskinean jasotakoak, honekin batera aldi berean emango den Dekretu baten bidez onartutakoak baizik. Era horretara, irizpide-baremook ondo egokituko zaizkie farmazia-zerbitzuak gaur egun eman beharreko zerbitzuari eta hori barematzeko modu berriari.

El Título I de este Decreto estableció un procedimiento para la creación de nuevas oficinas de farmacia, en desarrollo de lo dispuesto en el artículo 34 de la Ley 11/1994, de 17 de junio, de Ordenación Farmacéutica de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Este artículo resultó totalmente novedoso en relación con la legislación aplicable con anterioridad a su entrada en vigor, por prever, entre otras cosas, que el acceso a la titularidad de una oficina de farmacia debía basarse en los méritos alegados por los concursantes, para lo cual se establecería reglamentariamente un baremo atendiendo a las circunstancias y méritos profesionales y académicos de dichos concursantes.

Pues bien, el Decreto 338/1995 vino a cumplir con ese mandamiento legal, regulando el procedimiento para la creación de nuevas oficinas de farmacia y fijando en su Anexo el baremo de méritos para el acceso a la titularidad de las mismas.

Por su parte, el Decreto 166/1999, de 16 de marzo, por el que se establecía el procedimiento para la transmisión de oficinas de farmacia, fijaba, también en su Anexo, los criterios de valoración y baremo de méritos para la transmisión a título oneroso de las oficinas de farmacia, de manera que la capacidad económica para abonar el precio y demás condiciones establecidas por el transmitente, no fuese el único requisito para acceder a la propiedad y titularidad de una oficina de farmacia. La filosofía que aquí subyace es la de velar por una mayor calidad de la atención farmacéutica que se presta en las oficinas de farmacia, que es, precisamente, la misma finalidad que pretende el establecimiento de un procedimiento basado en los méritos de los concursantes cuando se trata de la creación de nuevas boticas.

Así, ocurrió que, por una parte, los criterios de valoración y baremo de méritos establecidos por el Decreto 166/1999 supusieron una notable mejora con respecto al baremo de méritos previsto por el Decreto 338/1995, pero, por otra, sacaron a la luz alguna de las lagunas de que adolece éste último, entre las que no es desdeñable la ausencia de criterios de valoración. Además, el trabajo diario de quienes debían dar trámite a ambos tipos de procedimientos se ha visto dificultado en este tiempo y en gran medida por el manejo de dos baremos distintos según se trate de uno u otro tipo de procedimiento, y tal diferencia no está justificada en modo alguno.

Para poner remedio a esta situación, es preciso adoptar como baremo aplicable a la creación de nuevas oficinas de farmacia los criterios de valoración y baremo de méritos que rigen para las transmisiones, si bien debe tenerse en cuenta que dichos criterios y baremo no son ya los contenidos en el Anexo al Decreto 166/1999, sino los que se aprueban mediante un Decreto que se dicta simultáneamente con el presente a fin de adaptarlos al actual concepto de la atención farmacéutica y a la nueva forma de baremarla.

Beraz, egoera horrek hala eskatuta, 338/1995 Dekretuaren eranskina aldatu beharra dago, eta, horren ondorioz, testuaren osotasunari eustearren, dekretu horren 2. eta 3.1 artikuluak ere moldatu egin behar dira.

Horrez gain, arauak berriz aztertzerakoan, ikusi dugu oraingo hau abagune ederra dela 338/1995 Dekretuak zuen hutsune bat zuzentzeko; beste era bateko establezimenduak ixterakoan mugaren bat ezartzen da, eta dekretu horretan, berriz, ez zen inolako denbora-mugarik ezarri farmazia-bulegoak jabeen borondatez aldi baterako ixten zirenerako, eta, beraz, denbora-muga hori gainditzearren izaten diren ondorioak ere ez ziren zehaztu.

Era berean, 7.6 artikuluaren idazkera ere argitu egin da, horko esaldi ilun bat argitzearren, eta antzeko gaiak darabiltzaten beste artikuluekin bateratsu jokatzearren.

Azkenik, Osasun Sailaren aurreko egitura organikoari buruzko aipamenak moldatu dira testu osoan, indarrean dagoen azaroaren 6ko 268/2001 Dekretuan ezarritakoari egokitzearren; Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuari buruz egindako aipamenak ere moldatu dira; eta errekurtso arruntei buruzko erreferentziak ere bai, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legean ezarritakoa betetzearren (Lege horrek moldatu baitzuen azaroaren 26ko 30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa).

Hori guztia horrela egingo da, ekainaren 27ko 338/1995 Dekretua osatzerakoan ardatz izan zen filosofia berbera izanda, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Farmaziak Antolatzeko ekainaren 17ko 11/1994 Legean ezarritakoa helduleku dela.

Horrenbestez, honen eragina izango duten korporazio-erakundeei entzunda, eta, Eusko Jaurlaritzako Aholku Batzorde Juridikoarekin ados, Osasun sailburuak proposatuta, Jaurlaritza Kontseiluak 2004ko otsailaren 3an egindako bileran gaia aztertu eta onartu ondoren, honako hau,

XEDATU DUT:

***Lehendabiziko artikulua.***– Farmazia-bulegoak sortzeko, lekuz aldatzeko, ixteko eta jardunean aritzeko prozedurak arautzen dituen ekainaren 27ko 338/1995 Dekretuaren 2. artikulua honako era honetara egongo da idatzita aurrerantzean:

«Farmazia-bulegoa sortzeko deialdian, horren titularitatea eskuratzeko aurkezten diren eskaerekin batera, honako dokumentazio hau aurkeztu behar da:

a) Eskaera-egileak botikari-titulua duela erakusteko egiaztagiria.

b) Aitorpena, hau jakinarazteko: ea, deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean, edo aurreko 12 hilabetee-

Todo ello obliga a modificar el Anexo del Decreto 338/1995 y, consecuentemente, a revisar la redacción de los artículos 2 y 3.1 del mismo Decreto para conservar la coherencia del texto.

Por otra parte, y con ocasión de la revisión normativa, se ha apreciado la conveniencia de cubrir en este momento la laguna que presentaba el Decreto 338/1995 en relación con el cierre temporal voluntario de las oficinas de farmacia, para el que, a diferencia de otro tipo de cierres, no se establece límite temporal alguno ni, por tanto, las consecuencias que la superación de dicho límite debe llevar aparejadas.

Asimismo, se aclara la redacción del artículo 7.6, que contiene una frase de difícil interpretación, para que guarde coherencia con otros artículos de similar contenido.

Finalmente, se modifican las menciones que a lo largo de su texto se hacen a la anterior estructura orgánica del Departamento de Sanidad, para adaptarlas a lo establecido por el vigente Decreto 268/2001, de 6 de noviembre, las menciones hechas al Servicio Vasco de Salud-Osakidetza y las referencias al recurso ordinario, a fin de adaptarlas a la Ley 4/1999, de 13 de enero, de modificación de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Todo ello se hace manteniendo intacta la filosofía de la atención farmacéutica que presidió la redacción del Decreto 338/1995, de 27 de junio, y al amparo de lo previsto en la Ley 11/1994, de 17 de junio, de Ordenación Farmacéutica del País Vasco.

En su virtud, oídas las entidades Corporativas afectadas, a propuesta del Consejero e Sanidad, de acuerdo con la Comisión Jurídica Asesora del Gobierno Vasco, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en sesión celebrada el día 3 de febrero de 2004,

DISPONGO:

***Artículo primero.***– El artículo 2 del Decreto 338/1995, de 27 de junio, por el que se regulan los procedimientos de creación, traslado, cierre y funcionamiento de las oficinas de farmacia, tendrá la siguiente redacción:

«Las solicitudes para el acceso a la titularidad de la oficina de farmacia cuya creación se convoque irán acompañadas de la siguiente documentación:

a) Acreditación de la condición de farmacéutico del solicitante.

b) Declaración de si es o no titular o cotitular de oficina de farmacia en la fecha de la publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial del

tan, eskaera-egilea farmazia-bulegoren baten titular edo titularkide izan den ala ez.

c) Eskaera-egilea, deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean, farmazia-bulegoren baten titular edo titularkide bada, eta farmazia horretan egindako jardunbide profesionala merezimendu modura bere alde aintzakotzat hartzea nahi badu, konpromisoa aurkeztu behar du, titularitatez duen farmazia-bulego hori itxiko duela, edo, titularkide denean, gainerako titularkide guztiek ere lehengo farmazia hori itxiko dutela.

d) Eskaera-egileak, deialdia argitaratutako une horretan bulegoaren titular edo titularkide ez izan arren, aurreko 12 hilabeteetan titular edo titularkide izan bada, agiriak aurkeztu beharko ditu egin den eskualdaketa hori egiaztatzeko, eta jakinaraziko du ea eskualdaketa hori, seme-alaben, gurasoen, biloben, anai-arreben edo ezkontidearen alde egin den, doan ala kostu bidez.

e) Dekretu honetako eranskinaren arabera aurkeztutako merezimenduak. Farmazia titularkide batzuen artean hartzeko denean, eskaerarekin batera, titularkideetako bakoitzak dituen merezimenduak aurkeztu behar dira.

f) Tasa ordaindu dela erakusteko egiaztagiria.»

***Bigarren artikulua.–*** Farmazia-bulegoak sortzeko, lekuz aldatzeko, ixteko eta jardunean aritzeko prozedurak arautzen dituen ekainaren 27ko 338/1995 Dekretuaren 3. artikuluko 1. idatz-zatia honela egongo da idatzita aurrerantzean:

«1. Balorazio Batzordeak egingo du eskaera-egileek aurkeztutako merezimenduen balorazioa, betiere, dekretu honetako eranskinean emandako baremoaren eta irizpideen arabera.

Botikari bik edo gehiagok elkarrekin batera titularkide izateko eskabidea egiten dutenean, horien guztien merezimenduak batuko dira, eta emaitza hori zati titularkide-kopurua, horixe izango da azken balorazioa.»

***Hirugarren artikulua.–*** Farmazia-bulegoak sortzeko, lekuz aldatzeko, ixteko eta jardunean aritzeko prozedurak arautzen dituen ekainaren 27ko 338/1995 Dekretuaren 7. artikuluko 6. idatz-zatia honela idatzita egongo da aurrerantzean:

«6. Artikulu honetako 1. idatz-zatian aipatzen den epealdia igarota, interesdunak, berari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla-eta, farmazia jardunean hasteko baimena eskatzen ez duenean, honako hau emango zaio aditzera: beste hiru hilabeteren barruan eskabiderik egin ezean, farmazia-bulegoa sortzeko baimenak dakarren betekizuna bete gabe geratuko dela, eta, horrenbestez, baimena indarrik gabe gelditu dela; orduan, farmazia-bulegoa sortzeko baimen-eskubi-

País Vasco y de si lo ha sido en los 12 meses anteriores.

c) En los supuestos en que el solicitante sea titular o cotitular de una oficina de farmacia en la fecha de la publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial del País Vasco, y pretenda que le sean computados los méritos que tengan su causa en el ejercicio profesional en dicha oficina de farmacia, aportará compromiso de cierre de la oficina de farmacia de la que es titular o, en su caso, compromiso de cierre por parte de la totalidad de los cotitulares.

d) En los supuestos en los que el solicitante no sea titular o cotitular de una oficina de farmacia en la fecha de publicación de la convocatoria pero lo hubiera sido en los 12 meses anteriores, aportará documentación acreditativa de la transmisión efectuada, con indicación de si la transmisión se efectuó a título gratuito o a título oneroso a favor de hijos, padres, nietos, hermanos o cónyuge.

e) Méritos alegados conforme al anexo del presente Decreto. Cuando la solicitud se haga para régimen de cotitularidad se aportarán los méritos alegados por cada uno de los solicitantes.

f) Justificante de abono de la tasa.»

***Artículo segundo.–*** Se da la siguiente redacción al apartado 1 del artículo 3 del Decreto 338/1995, de 27 de junio, por el que se regulan los procedimientos de creación, traslado, cierre y funcionamiento de las oficinas de farmacia:

«1. La valoración de los méritos de los solicitantes se realizará por la Comisión de Valoración, de acuerdo con los criterios y el baremo que consta como anexo a este Decreto.

Cuando la solicitud sea formulada en régimen de cotitularidad por dos o más farmacéuticos, se computarán los méritos de todos ellos, y el resultado se dividirá por el número de cosolicitantes.»

***Artículo tercero.–*** El apartado 6 del artículo 7 del Decreto 338/1995, de 27 de junio, por el que se regulan los procedimientos de creación, traslado, cierre y funcionamiento de las oficinas de farmacia, queda redactado como sigue:

«6. Transcurrido el plazo a que se refiere el apartado 1 de este artículo, sin que el interesado haya solicitado, por causa imputable a él mismo, la autorización de funcionamiento, se le advertirá que transcurridos otros tres meses sin efectuar tal solicitud, se entenderá incumplida la condición a que está sometida la autorización de creación, quedando ésta sin efecto, y proponiéndose como adjudicatario del derecho a obtener la autorización de creación de la oficina de farma-

dea izango du balorazio-zerrendako hurrengoak, alegia, aurkeztutako merezimenduen balorazioan punturik gehien lortu dituenak, betiere, baldin eta artikulu honetan ezarritako epeetako inongo konpututan, edo aurreragoko beste faseren batean, sartuta ez badago.»

*Laugarren artikulua.–* Farmazia-bulegoak sortzeko, lekuz aldatzeko, ixteko eta jardunean aritzeko prozedurak arautzen dituen ekainaren 27ko 338/1995 Dekretuaren 23. artikuluko 2. idatz-zatia honela idatzita egongo da aurrerantzean:

«1.– Honako hauek izango dira farmaziak titularraren borondatez aldi baterako ixteko arrazoiak:

a) Oporrak.

b) Farmazia ixtea dakarten obrak egitea.

c) Arrazoi profesionalak edo pertsonalak.

2.– Farmazia-bulegoa titularraren borondatez aldi baterako itxi denean, ezin izango da inola ere egoera horretan egon hiru urtetik gorako epe batean. Aipatutako epe hori igarota, titular horrek ezin izango dio inoiz ere farmazia-bulego horretako jardunari berriz ekin.»

*Bosgarren artikulua.–* Farmazia-bulegoak sortzeko, lekuz aldatzeko, ixteko eta jardunean aritzeko prozedurak arautzen dituen ekainaren 27ko 338/1995 Dekretuaren 28. artikuluko bigarren idatz-zatia era honetara egongo da idatzita aurrerantzean:

«2. Farmazia-bulegoa titularraren borondatez aldi baterako itxi, eta horretarako ezarrita dagoen epea bukatutakoan, farmaziak jardunean hasi beharko du besterik gabe, berehalaxe. Aipatutako epealdi hori gainditu gero, titular horrek ezin izango dio inoiz ere farmazia-bulego horretako jardunari berriz ekin.»

*Seigarren artikulua.–* Farmazia-bulegoak sortzeko, lekuz aldatzeko, ixteko eta jardunean aritzeko prozedurak arautzen dituen ekainaren 27ko 338/1995 Dekretuaren 38. artikulua honako era honetara egongo da idatzita aurrerantzean:

«Honako hauek dira farmazia-bulegoa behin betiko ixteko arrazoiak:

a) Botikari titularrak, edo titularkideek, edo horien jaraunsleek edo legezko ordezkariek eskabidea egitea.

b) Erregentea izendatzeko eskabiderik ez egitea, Euskal Autonomi Erkidegoan Farmaziak Antolatzeari buruzko ekainaren 17ko 11/1994 Legeko 18. eta 19. artikuluetan finkatzen den epea amaitu orduko.

c) Farmazia-bulegoa eskuz aldatzeko emandako epea igarotzea, Euskal Autonomi Erkidegoan Farmaziak Antolatzeari buruzko ekainaren 17ko 11/1994 Legeko 18., 19. eta 20. artikuluetan adierazitako egoeretan.

cia al siguiente solicitante que más puntos hubiera obtenido en la valoración de los méritos alegados y no se encontrase inmerso en cómputo alguno de los plazos previstos en este artículo o en alguna fase anterior.»

*Artículo cuarto.–* Se añade un apartado 2 al artículo 23 del Decreto 338/1995, de 27 de junio, por el que se regulan los procedimientos de creación, traslado, cierre y funcionamiento de las oficinas de farmacia, que queda redactado de la siguiente forma:

«1.– Son causas de cierre temporal voluntario de las oficinas de farmacia:

a) las vacaciones.

b) las obras que requieran cierre.

c) motivos profesionales o personales.

2.– Una oficina de farmacia en ningún caso podrá permanecer en situación de cierre temporal voluntario por periodo superior a tres años. Transcurrido dicho periodo, no cabrá el reinicio de la actividad de la oficina de farmacia por parte de su titular.»

*Artículo quinto.–* El apartado segundo del artículo 28 del Decreto 338/1995, de 27 de junio, por el que se regulan los procedimientos de creación, traslado, cierre y funcionamiento de las oficinas de farmacia, tendrá la siguiente redacción:

«2. La finalización del plazo de cierre temporal voluntario de la oficina de farmacia implicará el reinicio automático de la actividad en la misma. Superado dicho plazo no cabrá el reinicio de la actividad de la oficina de farmacia por parte de su titular.»

*Artículo sexto.–* El artículo 38 del Decreto 338/1995, de 27 de junio, por el que se regulan los procedimientos de creación, traslado, cierre y funcionamiento de las oficinas de farmacia, tendrá la siguiente redacción:

«Son causas de cierre definitivo de las oficinas de farmacia:

a) la solicitud formulada por el farmacéutico titular o cotitulares o por sus herederos o representantes legales.

b) la ausencia de solicitud de designación de regente en el plazo establecido en los artículos 18 y 19 de la Ley 11/1994, de 17 de junio, de Ordenación Farmacéutica de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

c) el vencimiento del plazo concedido para la transmisión de una oficina de farmacia, en los supuestos de los artículos 18, 19 y 20 de la Ley 11/1994, de 17 de junio, de Ordenación Farmacéutica del País Vasco.

d) Farmazia-bulegoa jabearen borondatez aldi baterako ixten denean, hori egin ahal izateko baimenak ezartzen duen epea amaitzen denerako, berriz jardunean hasita ez egotea.

e) Farmazia-bulegoa jabearen borondatez aldi baterako ixten denean, horretarako gehienez ere ezarrita dagoen hiru urteko epea amaitzen denerako, berriz jardunean hasita ez egotea.

f) Dekretu honetako 21.3 artikuluan aipatzen den sei hilabeteko epea amaitzen denerako, edo borondatez lekuz aldatzeko eskabidea, edo nahitaez lekuz aldatzekoa, edo eraberritu arte aldi baterako nahitaez itxita edukitzekoa, aurkeztu gabe izatea.

g) Dekretu honetako 30.3 artikuluan ezarritako sei hilabeteko epea bukatzen denerako, farmazia konpontzeko obrak egiteko eskabidea, edo borondatez farmazia lekuz aldatzekoa, egin gabe izatea.

h) Dekretu honetako 31.7 eta 34.3 artikuluetan ezarritakoari lotuta, farmazia nahitaez lekuz aldatzeko epea, edo eraberritu arte aldi baterako nahitaez itxita edukitzekoa amaitzen denerako, horretarako bidezkoa den baimena eskatu gabe izatea.

i) Epeak betetzen direnerako, eskabideak egin gabe egotea, edo aurkeztu beharrekoak aurkeztu gabe izatea, dekretu honetako 20.2, 21.6, 22.4 eta 36.3 artikuluen arabera.»

***Zazpigarren artikulua.***– Farmazia-bulegoak sortzeko, lekuz aldatzeko, ixteko eta jardunean aritzeko prozedurak arautzen dituen ekainaren 27ko 338/1995 Dekretuaren 41. artikuluaren bigarren idatz-zatiak idazkera hau izango du aurrerantzean:

> «2. Entzunaldia izapidetzeko garaian, interesatuak farmazia eskuz aldatzeko eskabidea egin ahal izango du, behin bakarrik; horrek amaitu egingo du farmazia behin betiko ixteko prozedura, baina, aldiz, hala badagokio, baliteke zehapen-espedientea hastea.»

***Zortzigarren artikulua.***– Farmazia-bulegoak sortzeko, lekuz aldatzeko, ixteko eta jardunean aritzeko prozedurak arautzen dituen ekainaren 27ko 338/1995 Dekretuaren 42. artikulua honako era honetara egongo da idatzita aurrerantzean:

> «Farmazia behin betiko ixteko prozedura hori, aurreko artikuluan ezarritakoa, erabilgarri izango da modu berean dekretu honetako 38. artikuluko d), e), f), g), h) eta i) idaz-zatietan aipatutako egoeretan ere.»

***Bederatzigarren artikulua.***– Farmazia-bulegoak sortzeko, lekuz aldatzeko, ixteko eta jardunean aritzeko prozedurak arautzen dituen ekainaren 27ko 338/1995 Dekretuaren eranskinean, merezimenduen baremoa finkatu zen; orain, horren ordez, dekretu honen eranskinean jasotako balorazio-irizpideak eta me-

d) el vencimiento del plazo que establezca la autorización de cierre temporal voluntario de una oficina de farmacia sin que se haya procedido al reinicio de la actividad de la misma.

e) el transcurso del plazo máximo de tres años establecido para el cierre temporal voluntario de una oficina de farmacia sin que se haya procedido al reinicio de la actividad de la misma.

f) el vencimiento del plazo de seis meses, a que se refiere el artículo 21.3 de este Decreto, sin haber solicitado bien el traslado ordinario, bien el traslado forzoso o bien el cierre temporal forzoso hasta la reconstrucción.

g) el vencimiento del plazo de seis meses, a que se refiere el artículo 30.3 de este Decreto, sin haber solicitado la realización de obras de reparación o el traslado ordinario.

h) el vencimiento de los plazos para el cierre temporal forzoso hasta la reconstrucción o para el traslado forzoso, a los que se refieren los artículos 31.7 y 34.3 de este Decreto, sin haber solicitado la autorización procedente.

i) el vencimiento de los plazos sin haber solicitado o aportado lo previsto en los supuestos de los artículos 20.2, 21.6, 22.4 y 36.3 de este Decreto.»

***Artículo séptimo.***– El apartado segundo del artículo 41 del Decreto 338/1995, de 27 de junio, por el que se regulan los procedimientos de creación, traslado, cierre y funcionamiento de las oficinas de farmacia, tendrá la siguiente redacción:

> «2. Durante el trámite de audiencia podrá solicitarse, por una única vez, la transmisión de la oficina de farmacia, lo que pondrá fin al procedimiento de cierre definitivo, sin perjuicio de que, en su caso, pueda incoarse el correspondiente expediente sancionador.»

***Artículo octavo.***– El artículo 42 del Decreto 338/1995, de 27 de junio, por el que se regulan los procedimientos de creación, traslado, cierre y funcionamiento de las oficinas de farmacia, quedará redactado de la siguiente forma:

> «El procedimiento de cierre definitivo previsto en el artículo anterior será también de aplicación en los casos previsto en los apartados d), e), f), g), h) e i) del artículo 38 de este Decreto.»

